BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
n01447080010916749007e83bd050e14K

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:
https://udalenegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA
b01447080b00e0916a7807e82d4050824C



**EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Ozaetan,

**BILDURIK**

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Mikel Belar Imaz jauna (35777853L NAN zenbakia), Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko ordezkaria izanik, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

**AURREKARIAK**

*LEHENA.-* Euskaren Gizarte Erakundeen Kontseiluak (KONTSEILUA) euskararen aldeko borondatezko gizarte-konpromisoa sustatzeko eta hizkuntzaren erabilera sektore guztietara zabaltzeko helburuarekin egiten du lan.

*BIGARRENA.-* Kontseiluaren eginkizun edo misioa gizarte-eragileak, eragile politiko-instituzionalak eta euskalgintzako eragileak, bakoitzak bere esku dituen neurri normalizatzaileak hartzera gonbidatzea da, ***Barrundian***, Araban eta Euskal Herri osoan, maila pertsonal, sozial eta ofizialean, euskararen berreskuratze-prozesuan aldaketa kualitatiboa lortzeko.

Euskararen gizarte-erakundeek elkarrekin indarrak bilduta, euskararen normalizazio-bidean prozesu eragingarria abiatzea, lantzea eta bermatzea da xedea, Euskal Herriko arlo sozio-politikoan, ekonomikoan eta kulturalean.

*HIRUGARRENA.-* Lan-eremu desberdinetan diharduten eta Barrundian hedadura zabalekoak diren askotariko elkarte-bazkidek osatzen dute Kontseilua, euskarak garapen osoa izateko xedeak batuta.



| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
|---|---|---|
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 09/05/2024 09:20 |

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA
n0144708b001091674907e83bd0050e14K

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/expertia/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA
b0144708b00e0916a7807e82d4050824C



Honenbestez, Barrundiako Udalak eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua (KONTSEILUA) erakundeak jarraian adierazitako hitzarmena sinatzen dute.

**HITZARKINAK**

*LEHENA.-* ***Barrundia*** osatzen duten herrietan eta Araban euskararen inguruan lanean ari diren gizarte-erakundeek osatzen duten egitura artikulatzeko proposamen teknikoa garatu du Kontseiluak 2024an.

*BIGARRENA.-* Euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu dira.

*HIRUGARRENA.-* Kontseiluak euskalgintzatik aparteko eragile eta norbanakoen inplikazioa bilatu du.

*LAUGARRENA.-* Kontseiluak hizkuntza-politika egokiak garabidean jartzeko harremanak izan ditu administrazioekin.

*BOSGARRENA.-* Barrundiako Udalak KONTSEILUA erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 600,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2024ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.003 partida).

*SEIGARRENA.-* KONTSEILUA Elkarteak gizarte segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela frogatuko du, halaber, ogasunean.

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ALKATEA EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

Mikel Belar Imaz

35777853L MIKEL BELAR (R: G20620217)

Digitalki sinatuta norengandik: 35777853L MIKEL BELAR (R: G20620217)
Data: 2024.05.09 12:26:49 +02'00'

| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| --- | --- | --- |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 09/05/2024 09:20 |